



EUSKO JAURLARITZAREN ETA BILBOKO PORTU-AGINTARITZAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENARI BURUZKO TXOSTEN JURIDIKOA.

126/2017 LGAKZ - LT

AURREKARIAK

- I. 2017ko azaroaren 10eko datarekin sarrera eman zitzaien Araubide Juridikoko Sailburuordetza honetan goian aipatutako protokolo proiektuaren legezkotasun txosten eskariari.

- II. Eskaria ondoren aipatzen diren agiriek osatzen dute:
 - Gobernu-kontseiluaren erabaki proposamena;

 - Lankidetzeta-hitzarmena eta “Convenio de colaboración entre el Gobierno Vasco y la Autoridad Portuaria de Bilbao para la promoción y normalización del uso del euskera” deritzona;

 - Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Lege Aholkularitzaren txostena, haren legelariak luzatua;

 - Oroitidazkia, eta

 - Eusko Jaurlaritza eta Bilboko Portuaren arteko Hitzarmenari buruzko aldaketen oroitidazkia.

III.-Txosten hau, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen 71/2017 Dekretuaren 14. artikuluan atxikitako eginkizunetan sustraitzen da. Baita ere, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoan.

PROIEKTUAREN AZTERKETA

IV.- Aldez aurretik adierazi behar dena da Saileko Aholkularitza Juridikoaren legelariak luzatu duen txosten bikainarekin bat natorrela.

V.-. Gainera, kontutan hartuta txosten horretan aipatutako ohar guztiak kontutan hartuak izan direla, aldaketen oroitidazkian agertzen eta zihurtatzen den bezala, ez dago legearekiko inongo aipamen berezirik egin beharrik .

VI.- Bukatzeko, azpimarragarriak dira bi gauza: bata, hitzarmen honen muina dela agerian jartzea bi erakundeen borondatea dela bidelagun izatea lankidetzan jarduteko; eta, bestetik, horrek ezin duela konpromiso ekonomikorik sortu.

Ondorioz, aldeko txostena luzatzen da.